

14/2015 Foru Dekretua, maiatzaren 26koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen aldizkako ikuskapenak arautzen dituen eta ikuskatu behar diren ekipoen errolda eta azterketa teknikorako estazioen erregistroa sortzen dituen

(2015eko ekainaren 5eko GAO)

OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan

Produktu fitosanitarioak ondo erabiltzeko, produktua modu homogeneoan banatu behar da eta baimendutako eta gomendatutako dosiak erabili behar dira, gizakien osasunerako eta ingurumenerako sortu daitezkeen eragin kaltegarriak saihesteko. Ekipoen edo aplikatzeko makinen erregulazio txar batek banaketa anomaloak ekar ditzake eta, halaber, kalteak, matxurak edo desdoikuntzak baldin badaude produktuaren ihesak eta isurketak sor daitezke egokiak ez diren tokietan.

2002ko azaroaren 20ko 43/2002 Legea, landare osasunari buruzkoa, estatuko lege esparrua da izurriteak prebenitzeko eta kontrolatzeko jarduerak arautzeko, baita babes fitosanitariorako produktuak erregulatzeko ere, nekazaritzako plagizidak aplikatzeko ekipoen edo makineria barne.

2009ko urriaren 21eko Europar Parlamentuko eta Kontseiluko 2009/128/EE Direktibak, plagiziden erabilera jasangarria lortzeko batasunaren jarduketa esparrua ezartzen duenak, 8. artikuluan xedatzen du estatu kideek arduratuko direla profesionalak erabili beharreko plagizidak erabiltzeko ekipamenduen azterketak aldizka egiteaz.

2011ko azaroaren 18ko 1702/2011 Errege Dekretuaren bidez, plagiziden erabilera jasangarriari buruzko Direktibaren 8. artikulua barne antolamendu juridikoan iraultzen da, eta, landare osasunari buruzko 43/2002 Legea garatzen da, produktu fitosanitarioak aplikatzeko makinen prestaketa eta mantenimendu baldintzak betetzen direla egiaztatzeko kontrol ofizialei dagokienez. Produktu fitosanitarioak erabiltzeko ekipamenduen aldizkako azterketak erregulatu dituzte, ekipoen zehaztu eta sailkatzen dituzte, ITEAFek (Fitosanitarioak Aplikatzeko Ekipoen Azterketa Teknikorako Estazioak) bete behar dituzten gutxienezko baldintzak ezartzen ditu eta ikuskapenak egiteko metodologia ezartzen du. Errege Dekretuaren 5. artikuluan 2016ko azaroaren 26ko epemuga ezartzen da Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialean (ROMA) erregistratuta dauden fitosanitarioak aplikatzeko makineria guztia ikuskatzeko. Bestalde, 7. artikuluan ITEAFeko estamentuak zehazten ditu, eta horien artean administrazioko unitate propioak daude.

1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremani buruzkoak, eskumena ematen die lurralde historikoei landare osasunaren arloan erakunde komunek emandako arauak garatzeko eta gauzatzeko (7 b 1. artikulua).

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko ekainaren 25eko Aginduaren bidez, Defentsa Fitosanitarioko Baliabideen Ekoizle eta Operadoreen Erregistro Ofiziala arautzen da, eta 2012ko irailaren 18ko 1702/2011 Errege Dekretuaren zenbait alderdi garatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan. Aipatutako aginduaren lehenengo xedapen gehigarrian ezartzen denez, foru aldundietako organo eskudunari dagokio egitea bai 2011ko azaroaren 18ko 1702/2011 Errege Dekretuak arautzen duen produktu fitosanitarioak aplikatzeko makineria eta ekipamenduen ikuskapena, bai babes fitosanitarioko baliabideen esparruko gainerako ikuskapen lanak. Nolanahi ere, beharrezkoa da organo horiek Eusko Jaurlaritzako sail eskudunarekin koordinatzea, Landare Osasunaren Euskal Autonomia Erkidegoko Batzorde Tekniko Koordinatzailearen esparruan.

Horiek horrela, Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko foru diputatuak proposatuta, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorritz, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau,

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea.

Foru Dekretuaren xedea da arautzea Gipuzkoako Lurralde Historikoan produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen aldizkako ikuskapenak, produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen errolda, ikuskapena estazioen baimenaren eta erregistroaren prozedura, eta ikuskapenerako prozedura eta programa.

2. artikulua.- Definizioak.

Foru Dekretuaren ondorioetarako, 2011ko azaroaren 18ko 1702/2011 Errege Dekretuak, produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen aldizkako ikuskaritzei buruzkoak, 2. artikuluan xedatutako definizioak aplikagarriak izango dira.

3. artikulua.- Aplikazio eremua.

Foru dekretuaren aplikazio eremuaren barruan produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen ikuskatzeko jarduerak daude, 2011ko azaroaren 18ko 1702/2011 Errege Dekretuak, produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen aldizkako ikuskaritzei buruzkoak, 3. artikuluan ezartzen direnak.

II. KAPITULUA - IKUSTATU BEHARREKO PRODUKTU FITOSANITARIOAK APLIKATZEKO EKIPOEN ERROLDA

4. artikulua.- Produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen errolda.

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoan ikuskatu behar diren ekipoen errolda sortzen da. Errolda horrek foru dekretu honetako 3. artikuluan adierazitako ekipoa jasoko ditu, eta nekazaritza arloan eskumena duen departamentuari atxikiko zaio.

2. Erroldaren kudeatze, mantentze eta eguneratze lanak landare osasunaren arloan eskumenak dituen zuzendaritza orokorreko administrazio organoak egingo ditu.

3. Errolda egingo da, alde batetik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialean (ROMA) dagoen informazioarekin (2009ko ekainaren 19ko 1013/2009 Errege Dekretuak, nekazaritza makineria ezaugarritzeari eta erroldatzeari buruzkoak, eta 2011ko apirilaren 5eko 214 Foru Aginduak, Gipuzkoako ROMAn makineria inskribatzeari buruzkoak, arautzen dutenak), eta, bestetik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialean inskribatu beharrik ez duten ekipoen jabeen aitortpenarekin.

4. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialean inskribatutako ekipoa ofizioz inskribatuko dira kapitulu honetan erregulatzen den erroldan.

5. Erabiltzen diren ekipoa eta ekipo berrien titularrek (ekipo berri horiek 2011ko azaroaren 18ko 1702/2011 Errege Dekretuak, produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen aldizkako ikuskaritzei buruzkoak, 3. artikuluko 1. puntuan sartuta daudenak, eta ez da beharrezkoa Gipuzkoako Lurralde Historikoko Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialean erregistratzea egotea), erroldan sartzeko beharra dute eta landare osasunaren arloan eskumena duen zuzendaritza orokorrari eskatuko diote sartzea. Horretarako, eskaera bete eta produktu fitosanitarioen manipulatuzaile txartelaren fotokopiarekin batera bidaliko dute, eta entitate bat bada, IFKrekin batera. Foru dekretua argitaratu ondoren erositako ekipoek eskaera aurkeztuko dute erosi eta bi hilabete barruan.

5. artikulua.- Erroldaren eguneratzea.

1. Landare osasunaren arloan eskumena duen zuzendaritza orokorrak abenduaren 31n eguneratuko du errolda urtero, baja eta ekipo berrien datuak sartuta, eta hurrengo urteko martxoaren 31 baino lehen nekazaritza arloan eskumena duen Ministerioari bidaliko dio.

2. Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen erroldaren eguneraketa ofizioz egingo da.

3. ROMAn ez dauden ekipoen informazioari dagokionez, titularrak eskatuta edo ofizioz egingo da, kontrol ofizialen ondorioz aldaketak antzematen badira.

6. artikulua.- Erroldan jasota dagoen informazioa.

Ikuskatu behar diren ekipoen erroldak **I. eranskinean** adierazitako informazioa jasoko du ekipo mota bakoitzerako, eta datu pertsonalak 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalak babesteari buruzkoak, xedatutakoaren mende geratuko dira.

III. KAPITULUA - IKUSKAPEN ESTAZIOEN ERREGISTROA

7. artikulua.- Ikuskapen estazioen erregistroa.

Produktu Fitosanitarioak Aplikatzeko Ekipoen Azterketa Teknikorako Estazioen Erregistroa (aurrerantzean RITEAF) sortzen da, produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoei aldizkako ikuskapenak egiteko. Erregistroa nekazaritza arloan eskumena duen departamentuari atxikiko zaio, landare osasunaren arloan eskumena duen zuzendaritzaren bidez.

8. artikulua.- Fitosanitarioak Aplikatzeko Ekipoen Azterketa Teknikorako Estazioak (ITEAF).

1. ITEAF estazioek produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen aldizkako ikuskapenak egingo dituzte, foru dekretu honen 3. artikuluan ezartzen direnak, hain zuzen.

2. Dagozkien zereginak egiteko, ITEAF estazioek landare osasunaren arloan eskumena duen zuzendaritza orokorraren baimena izan behar dute, betiere, helbide soziala Gipuzkoako Lurralde Historikoan badaute eta RITEAF erregistroan inskribatuta badaude.

3. Beste autonomia erkidegoek edo lurralde historikoek baimendutako ITEAF estazioak Gipuzkoan aritu ahal izango dira. Agintari eskudunak foru dekretu honen 14. artikuluan ezarritako kontrol jarduerak burutu ditzan, landare osasunaren arloan eskumena duen zuzendaritza orokorrari hilabete lehenago jakinaraziko zaio jarduera hasteko asmoa eta, jakinarazpen horrekin batera, beste erkidego edo foru organo eskudunak emandako baimena eta foru dekretu honen 10.3 artikuluan adierazitako erantzukizun zibileko poliza bidali beharko zaizkio.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan bere jarduera garatu nahi duten estazioek Gipuzkoako Foru Aldundiak baimendutako ITEAFek bete behar dituzten kontrol, betebeharrak eta baldintza berak bete beharko dituzte.

4. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazio unitate propioen kasuan, ez da baimen ebazpenik emango, baina, hala ere, ITEAFa izateko eskatzen diren langile eta ekipamenduari buruzko baldintza berak bete beharko dira; landare osasunaren arloan eskumena duen zuzendaritza orokorrak egiaztatuko du hori ikuskapen lanetan hasi baino lehen.

9. artikulua.- Bateriaezintasunak.

1. Ezingo dira inskribatu RITEAF erregistroan, 2011ko azaroaren 18ko 1702/2011 Errege Dekretuak, produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen aldizkako ikuskaritzari buruzkoak, 7.2. artikuluan ezartzen dituen baldintzetan izan ezik, enpresa bateko kideek edo zuzendariak eta bertan lan egiten duten langileek ondorengo jardueretan zuzenean edo zeharka parte hartzen badute:

a) Produktu fitosanitarioak aplikatzeko makineriaren fabrikazioarekin edo merkaturatzearekin zerikusia duten jarduerak.

b) Tratamendu fitosanitariorako makinak eta horien elementuak konpontzeko tailerrak edo establezimenduak.

2. 1702/2011 Errege Dekretuaren 7.2. artikuluan ezarritako arazoak direla eta, aurreko 1. atalean adierazitako entitatearen bat gaitu beharko balitz, nekazaritza arloan eskumena duen departamentuaren ebazpenaren bidez gaitasun hori ezarri ondoren emango litzateke baimena.

10. artikulua.- Produktu Fitosanitarioak Aplikatzeko Ekipoen Azterketa Teknikorako Estazioek (ITEAF) bete behar dituzten baldintzak.

1. ITEAFeko titularrak izango dira 1702/2011 Errege Dekretuaren 7. artikuluan adierazten direnak.

2. ITEAF estazioek langile adituak eta ekipamendu egokiak izango dituzte, 1702/2011 Errege Dekretuaren 8 eta 9. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

3. 1702/2011 Errege Dekretuaren 7.3. artikuluan ezarritakoari jarraituz, administrazio publikoarenak ez diren ITEAF estazioek baimena duen entitate batekin izenpetutako erantzukizun zibileko poliza, abala edo beste finantza berme bat izango dute, bere erantzukizuna babestuko duena ingurumen kalteen, kalte materialen eta hirugarrenei eragindako kalte pertsonalen aurrean (gutxienez 100.000 eurokoa); nolana ere, babestutako arriskuaren motaren eta garrantziaren arabera izango da eta polizaren zenbatekoak ez du erantzukizun horren muga gaindituko. Aseguratua ITEAFa izango da, ez langileak edo jabea.

4. ITEAFeko langileak identifikatuta egongo dira beti produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipook aztertzean.

11. artikulua.- RITEAF erregistroan baimena eta erregistroa.

1. Titularrek eskatuta emango da baimena ITEAF izaera eskuratzeko eta erregistroan alta emateko, aurreko artikuluan ezarritako baldintzak egiaztatu ondoren.

2. Eskaera, foru dekretuaren II. eranskinean jasotako dokumentazioarekin batera, landare osasunaren arloan eskumena duen zuzendaritza orokorrera bidaliko da.

Eskaerak eskatutako baldintzak ez baditu betetzen, jakinarazpena jaso eta 10 eguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko, edo beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko, eta, ez badu hori egiten eskaeran atzera egin duela ulertuko da, landare osasunaren arloan eskumena duen zuzendaritza orokorrak ebazpena eman ondoren.

3. Eskaera eta dokumentazioa jasotzen direnean, landare osasunaren arloan eskumena duen departamentuko teknikariek ikuskapen bisita egingo dute entitatera, aurkeztutako datuak egiaztatzeko. Bisita horren ondorioz, txosten bat egingo da.

4. Aurkeztutako eskaera eta dokumentazioa aztertu ondoren, eta aurreko apartatuan aipatu den txostenaren ondorioz, landare osasunaren arloan eskumena duen zuzendaritza orokorrak ITEAF estazioari dagokion ebazpena emango du, produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen ikuskapen teknikoak egiteko eta inskribatzeko baimena ematekoa edo baimen hori ezeztatzea, betiere, behar bezala arrazoituta.

5. Ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori amaitu ondoren, dagokion ebazpena eman eta jakinarazi ez bada, eskaera isiltasun administratiboagatik ezetsita dagoela ulertuko da.

6. Foru dekretu honen ondoriozko datu pertsonalen tratamendua, 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalak babesteari buruzkoak, xedatutakoaren arabera eta garapen arauen arabera arautuko da.

7. Baimena eta inskripzioa emateko oinarritzat hartu den edozein baldintza edo eskakizun aldatzen bada, nekazaritza arloan eskumena duen zuzendaritza orokorrari jakinaraziko zaio 2 hilabeteko epean. Edozein kasutan ere, aldaketa horien ondoriozko baldintzak bat etorriko dira foru dekretuan ezarritako eskakizunekin.

8. ITEAF estazioen baimenak eta inskripzioak, produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen ikuskapenak egiteko, mugarik gabeko balioa dute, betiere 12. artikuluan ezarritako baliogabetzea ez bada gertatzen.

12. artikulua.- Baimena balio gabe uztea eta erregistroan inskripzioa ezeztatzea.

1. Baimena balio gabe geratuko da eta erregistroko inskripzioa ezeztatuko da honelako inguruabarrak gertatzen direnean:

- ITEAFeko titularrak baliogabetze eskaera egitea.

- Baimena lortzeko oinarritzat hartu ziren baldintzak ez betetzea.

- Ikuskapen teknikoak egitea 18. artikuluan ezarritako baldintzei kasurik egin gabe.

2. ITEAFeko titularrak proposatuta, baimena balio gabe uztea eta RITEAF erregistroan baja ematen bada, landare osasunaren arloan eskumena duen zuzendaritza orokorrari jakinaraziko dio.

3. ITEAF estazioari eskatutako baldintzak ez baditu betetzen, landare osasunaren arloan eskumena duen zuzendaritza orokorrak hasiera emango dio dagokion baimenaren baliogabetze prozedurari eta, ondorioz, estazioak ezingo du ikuskapen jarduerarik garatu.

Akatsak beste administrazio batek baimendutako ITEAF estazioari buruzkoak badira, dagokion administrazioari jakinaraziko zaio, behar diren neurriak har ditzan.

4. Landare osasunaren arloan eskumena duen zuzendaritza orokorrak, ITEAFaren baimenaren baliogabetze prozedura hasi baino lehen, ikusitako akatsen berri emango dio titularrari, eta horrek hilabeteko epea izango du antzemandako akatsak zuzentzeko; halaber, baimena eman dezake ikuskapen jarduera egiteko, baldin eta akatsak zuzendu badira.

Ezarritako epean akatsak ez badira zuzentzen, landare osasunaren arloan eskumena duen zuzendaritza orokorrak ITEAF estazioari emandako baimena baliogabetuko du eta baja emango dio enpresari RITEAF erregistroan. Gorabehera hori interesdunari jakinaraziko dio eta sei urtetan titularrak ezingo du baimenik eskuratu.

13. artikulua.- Jarduera etetea.

Kautelaz eta behar beste denboraz, aldi baterako eten daiteke Gipuzkoako Lurralde Historikoan lanean ari diren ITEAF estazioen jarduera, landare osasunaren arloan eskumena duen zuzendaritza orokorrak egiaztatzen badu ez direla bete baimena lortzeko eskatu ziren oinarritzko baldintzak edo ikuskapen prozeduretan irregulartasunak baldin badaude.

Beste Erkidego Autonomoak baimendutako ITEAF estazioen kasuan, baliogabetzea Gipuzkoako Lurralde Historikoaren eremura mugatuko da.

14. artikulua.- ITEAF estazioen betebeharrak betetzen direla kontrolatzea.

1. Agintari eskudunari dagokio Ikuskapenak gainbegiratzea.

2. Agintaritza eskudunaren langile espezializatuak egin ahal izango dute gainbegiratze lan hori, nekazaritza mekanizazioan espezializatuak dituen unibertsitateetako sailekin batera, hala erabakitzen bada.

3. Arau-haustek antzematen direnean, agintari eskudunaren langileek akta jasoko dute eta, ondorioz, hasiera emango zaio zigor prozedurari, gertaerak arau-hauste administratibotzat jotzen badira.

4. Agintari eskudunak gainbegiratu ahal izango ditu ikuskapen txostenak, ziurtagiriak, ikuskapenetan egindako oharrek, eta ITEAF estazioen ikuskapen zerbitzuan eragina duten operazio guztiak.

5. Agintari eskudunak egiaztatzen duenean ez direla bete ITEAF baimena edukitzeko eskatzen diren baldintzak eta betebeharrak, edo ez direla bete estazioari dagozkion edo baimen ebazpenean ezarritako obligazioak, orduan, dagokion prozedura administratiboa tramitatuko da ITEAF estazioari audientzia tramitea emanda eta, ondoren, baimena amaituzat jotzen duen ebazpena emango da; hala ere, horrek ez du esan nahi 3. puntuan ezarritako neurriak aplikatuko ez direnik, hala dagokionean.

15. artikulua.- Foru Aldundiko administrazioaren produktu fitosanitarioak aplikatzeko makinaren ikuskapena.

Landare osasunaren arloan eskumena duen departamentuak produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen ikuskapena egingo du, dagokion prezio publikoaren eskaera eta ordainketa egin ondoren.

IV. KAPITULUA - IKUSKAPEN PROGRAMA EGITEA

16. artikulua.- Organo eskuduna eta ikuskapenen programa.

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoan nekazaritza arloan eskumena duen departamentua da ikuskapen programa kontrolatzeko eta aplikatzeko agintari eskuduna. Bere eskumenak landare osasunaren arloan eskumena duen zuzendaritza orokorraren bidez gauzatuko ditu.

2. Urtero, programazioari dagokion urtearen aurreko azaroaren 30a baino lehen, landare osasunaren arloan eskumena duen zuzendaritza orokorrak ikuskapen programa bat ezarriko du, eta lehentasuna eta aldizkakotasunari dagokienez, 1702/2011 Errege Dekretuaren 5. artikulua ezarritakoari egokituko zaio. Ikuskapen programa horrek ezarriko du aplikazio ekipoak ITEAF estazio batean ikuskatuko direla gutxienez behin, 2016ko azaroaren 26a baino lehen.

17. artikulua.- Makineria ikuskatzeko eskaera.

1. Produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen titularrek beren ekipoak ikuskatzeko ardura izango dute, eta beren makinak ikuskatzeko eskaera egin ahal izango diete baimendutako edozein ITEAF estaziori edo Administrazioari.

2. Azterketa administrazioari eskatzen bazaio, eskaera landare osasunaren arloan eskumena duen zuzendaritza orokorrari bidaliko zaio agiri hauekin batera: produktu fitosanitarioen manipulazailer txartelaren fotokopia, eta entitate bat bada, IFKaren fotokopia eta zerbitzua ordaindu izanaren ordainagiria, ezarritako prezio publikoen arabera.

18. artikulua.- Makineriaren ikuskapena egitea.

1. Ofizialki kreditatuta dagoen ikuskatzaile batek egingo du ikuskapen bakoitza, 1702/2011 Errege Dekretuaren 8. eta 13. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

2. ITEAF estazioak egiaztatuko du, ikuskapena egin baino lehen, ikuskatu behar den makina dagokion erroldan dagoela.

3. ITEAFek ikuskapenak egingo dituzte 1702/2011 Errege Dekretuak ezartzen duenari jarraituz, arlo horretan eskumena duen ministerioak ezarritako ikuskapen eskuliburuaren arabera, eta horrelakorik ezean, 2012ko maiatzaren 16ko AAA/1053/2012 Aginduak izendatutako Produktu Fitosanitarioak aplikatzeko Ekipoak Ikuskatzeko Erreferentziazko Estatuko Laborategiren eskuliburuaren arabera, eta indarrean dauden araudien arabera.

4. Ekipoen titularrei aurkitutako akatsen berri emango zaie eta, behar izanez gero, konpontzeko neurrien berri.

19. artikulua.- Ikuskapenen emaitzak.

1. ITEAF estazioak emandako ziurtagiri batean islatuko dira ikuskapen teknikoaren emaitza eta ikuskapen hori egindako data eta, ziurtagiri horri ikuskapen buletin bat erantsiko zaio, non jasota egongo diren ikuskatutako ekipoaren elementu guztiak eta aurkitutako akatsak, arinak nahiz larriak, gutxienez azaroaren 18ko 1702/2011 Errege Dekretuaren III. eranskinean agertzen den informazioa erantsita; honela izapidetuko da:

a) Ikuskapenaren arduradunaren sinadura.

b) ITEAFaren enpresa titularraren sigilua.

ITEAFean bertan eskuragarri egongo dira bi dokumentuen kopia eta ikuskapenean sortutako beste edozein dokumentu; formatu elektronikoa egon daitezke.

3. ITEAF estazioak, hilean behin, landare osasunaren arloan eskumena duen zuzendaritza orokorrari bidaliko dio ikuskatutako ekipoen zerrenda, ikuskapenen emaitzarekin batera. Informazioa bidaliko da landare osasunaren arloan eskumena duen zuzendaritza orokorrak ezarritako aplikazio informatikoen bidez.

4. Ikuskapenaren emaitza aldekoa izango da ez bada akats larririk antzeman, larritzat ulertuta produktuaren banaketaren kalitateari, langilearen segurtasunari edo ingurumenari larriki eragiten dien akatsa, horrela baitago tipifikatuta ikuskapenen eskuliburuan.

5. Ikuskapena aldekoa bada, ITEAF estazioak, ikuskatutako ekipo bakoitzagatik, ziurtagiri bat eta ikuskapen buletin bat emango dizkio ekipoaren titularrari eta, halaber, 1702/2011 Errege Dekretuaren 12. artikulua aipatzen duen bereizgarri autoitsaskor bat, ekipoan ondo ikusten den lekuan jarri beharko dena.

ITEAFean bertan eskuragarri egongo dira bi dokumentuen kopiak eta ikuskapenean sortutako beste edozein dokumentu; formatu elektronikoan egon daitezke.

1702/2011 Errege Dekretuaren 12. artikulua jasotzen duen bereizgarri autoitsaskorra landare osasunaren arloan eskumena duen zuzendaritza orokorrak onartutako eredura egokituko da, eta bertan datu hauek jarriko dira: hurrengo ikuskapena egiteko epemuga, ikuskapena egin duten ITEAF estazioaren identifikazioa eta ikuskapenaren identifikazio zenbakia.

6. Ikuskapen erregimenaren eraginpean dauden ekipo guztiek derrigorrez jarri behar dute ikuskapen bereizgarria.

7. Ikuskapena kontrakoa denean ezingo da ekipoa erabili. Orduan, ITEAF estazioak dagokion ziurtagiria emango du eta, bertan, aurkitutako akatsak adieraziko ditu, bai arinak bai larriak, eta beste ikuskapen bat egiteko epemuga jarriko du; ikuskapen hori ITEAF berean egingo da, ziurtagiria eman eta 30 eguneko gehienezko epean.

20. artikulua.- Prezio publikoak eta tarifak.

1. Prezio publikoen tarifak foru dekretuaren bidez ezarriko dira, hala dagokionean, eta Administrazioak jaso ahal izango ditu baldin eta zerbitzua administrazio unitate batek eskaintzen badu.

2. ITEAF estazio pribatuek agintari eskudunari jakinaraziko diote ikuskatu behar diren ekipoen tipologiaren arabera aplikatuko dituzten zenbatekoak. Zenbatekoak kalkulatzeko, kontuan hartuko dira egin beharreko joan-etorriak, ikuskatu behar diren ekipoen kopurua, eta zenbateko horiek zehazteko orduan aintzat hartu beharreko beste edozein elementu. Zenbatekoen edozein aldaketa organo eskudunari jakinarazi eta zurituko zaio.

ITEAF estazioek kobratuko dute, beraiek ezarritako moduan, zerbitzuen erabiltzaileek ordaindu behar duten zenbatekoa.

3. Organo eskuduna saiaturiko da bermatzen prezioak zentzuzkoak izango direla, jarduera lurralde historiko osoan gauzatuko dela, eta erabiltzaileentzat prezioak ez direla eragozleak izango.

21. artikulua.- Zigor arauak.

Foru dekretuko II-IV kapituluak ezarritako ez betetzei aplikatu beharreko zigor erregimena 2002ko azaroaren 20ko 43/2002 Legeak, landare osasunari buruzkoak, ezarritakoa izango da.

Xedapen gehigarria. ITEAF estazioak ofizioz inskribatzea.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazioak eraturako ITEAF estazioak RITEAF erregistroan ofizioz inskribatuko dira.

Xedapen iraunkorra. ROMAn inskribatzeko beharrik ez duten produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipo erabilgarrien inskripzioa.

ROMAn inskribatzeko beharrik ez duten produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipo erabilgarrien titularrek 6 hilabeteko epea izango dute, foru dekretu hau argitaratzen denetik hasita, ekipoak erroldan sartzeko eskaera landare osasunaren arloan eskumena duen zuzendaritza orokorrari egiteko. Ekipo horiek gaur egungo araudia bete behar dute.

Amaierako lehenengo xedapena. Industria segurtasuneko eskumenak.

Foru dekretu honetan jasotzen diren produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen aldizkako ikuskapenak Erkidego Autonomoaren Administrazioako beste administrazio edo organo batzuei dagozkien industria segurtasuneko eskumenak eragotzi gabe egingo dira.

Amaierako bigarren xedapena. Garatzeko ahalmena.

Nekazaritza arloan eskumena duen departamentuko titularrari ahalmena ematen zaio, bere eskumenen eremuan, dekretu hau garatu eta burutzeko behar diren xedapenak erabaki ditzan.

Amaierako hirugarren xedapena. Indarrean sartzea.

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

I. ERANSKINA. Ikuskatu behar diren ekipoen erroldan jasotako informazioa.

Ikuskatu behar diren ekipoen erroldak ondorengo informazioa edukiko du:

1) *Produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipo mugikorrak:*

- Titularraren izena/izen soziala.
- Titularraren NA/IFZ.
- Marka.
- Modeloa.
- Makina mota (UNE 68051).
- Txasis zenbakia.
- Titularraren jarduera nagusia egiten den herria.

2) *Aireontzietan jarrita dauden aplikazio ekipoak:*

- Titularraren izena/izen soziala.
- Titularraren NA/IFZ.
- Lainoztatze sistema.
- Ponpa.
- Depositua.
- Aire Unitatea.
- Tratamenduen zabalera.
- Ekipoaren kokapena.

3) *Berotegietan edo gune itxietan dauden ekipoak:*

- Titularraren izena/izen soziala.
- Titularraren NA/IFZ.
- Lainoztatze sistema.
- Ponpa.

-Depositua.

-Aire Unitatea.

-Tratamenduaren azalera.

-Ekipoaren kokapena.

II. ERANSKINA. ITEAF estazioak baimentzeko eskaera.

ITEAF estazioak baimentzeko eskaerari ondorengo dokumentazioa erantsiko zaio:

- Enpresa edo entitatearen estatutuak edo arauak.
- Memoria tekniko bat, honelako deskribapenak azaltzen dituena:
 - Eskaini daitezkeen langileak eta horien prestakuntza.
 - Instalazioak eta ekipamendu tekniko erabilgarria.
 - Ikuskapenetan erabiltzen diren neurtzeko gailuak kalibratzeko prozedurak.
 - Jardueraren arriskuez babesteko erabiltzen den sistema.
 - Ikuskapen eskuliburuak.
- Zuzendari teknikoaren eta ikuskatzaileen gaitasun agiriak.
- Aitorpen agiria, non adierazten den entitateak, bazkideek eta langileek ez dutela parte hartzen zuzenik edo zeharkakorik produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen fabrikazio, merkaturatze edo konponketa jardueretan.